


# BALIOZKO PROPOSAMENA

## ZURE ORRAZKERARIK GUSTUKOENA, ILEA UKITU GABE


Gure orrazkera ikustailea, zure orrazkera berrira aurreratzeko metodorik aproposena da, nola geratuko zaizun ikusteko aukera ematen dizulako. Inoiz ikusi den asmakizunik onena, izan ere, norik ez du eraman ezustekoren bat ile apaindegitik irtetea? eta argi dago, moztutako ilea ezin dela berreskuratu, konponezina da. Goi-teknologiako tresna honekin akabo atsekabeak, ilea mozten hasi aurretik zure orrazkera berria izango dena aukeratu, probatu eta kalera irtetea disfrutatu.

Zure ile-apaindegia onenetan-onena izateko aitzakiarik ez dago jada. Errentagarritasunari dagokionez, erabatekoa da gainera, gure makina erosteko dirua gastatu behar den arren, hori eta askoz gehiago bezeroekin irabaziko delako, ikusi al da aukera paregabeagorik? Bere ile ikuskeren artean gainera oso eremu zabala dago, umeez gustukoak izan ditzaketen orrazkeretatik hasi eta pertsona nagusi batek nahiagoko dituenetaraino, aldaera handiak eskainiz.

Produktu honek berritasuna eskaintzan du aurretik ez delako horrelako ezer ikusi eta diseinu oso berezia duelako. Eskuragarritasunari dagokionez ere, ez da inolako arazorik izango, online enkargatu daitekeelako eta denbora askorik itxaron gabe zure dendan izateko aukera duzulako. Lana errazteko ere pentsatuta dago zer egin behar den ikustea ahalbidetzen dizulako imajinazioa botatzea saihestuz. Gure balioa kualitatiboa da, diseinuak duelako garrantzia.



PROIEKTUAREN PROTOTIPOA



APLIKAZIOAREN PROTOTIPOA